



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2023ko martxoa

BILBOKO GURASO GAZTEEN IKERKETA

**Haur txikiak dituzten gurasoen
hizkuntza-bizipenak, -praktikak eta
harreman-sareak**

Proiektuaren zirriborroa



Aurkibidea

1	Sarrera	2
2	Helburua.....	2
3	Prozedura eta metodologia.....	3
3.1	Lehenengo fasea: guraso gazteen elkarguneak ezagutzen	4
3.2	Bigarren fasea: hiriko hiztunak ezagutzen	5
3.3	Hirugarren fasea: hiztunak saretzen eta aktibatzen	5
3.4	Laugarren fasea: bukaerako emaitza eta aurkezpena.....	6
4	Ikerketa taldea	6
5	Kronograma	7

1 SARRERA

Familiak hizkuntza-eragile garrantzitsuak dira, eta, batzuetan oharkabean bada ere, hizkuntza-politika diseinatu eta garatu egiten dute. Etxeko hizkuntza zein izango den, euren haurren hezkuntza eredua zein izango den, aisialdian zein hizkuntza nagusituko den, horiek dira, besteak beste, euren gain hartzen dituzten erabaki potoloak. Eta horiekin batera, beste asko eta asko, txikiagoak diruditen arren egunerokoa blaitzen dutenak, esate baterako, parkeko hizkuntza zein izango den.

Guraso gazteek hizkuntza-sozializazio prozesuan paper garrantzitsua jokatzeko dute eta, une honetan, euskara biziberritzearen alde ekarpen handia egin dezakete. Horretarako, beharrezkoa zaigu zer bizipen, ideia eta beharrak dituzten jakitea, horien arabera diseinatu baitaitezke eraginkorrak izango diren plangintzak. Testuinguru zehatzetan kokatutako ikerketak, beraz, funtsezkoak zaizkigu aurrerantzean garatu daitezkeen programak irudikatzen eta diseinatzeko.

Bilbon hizkuntzen erabileraren kale-neurketak utzitako emaitzen harira, haur txikiak dituzten guraso gazteekin ikerketa bat abiatzeko proposamena egin zion Soziolinguistika Klusterrak Bilboko udalari. Zehazki, Bilboko guraso berrien hizkuntza-praktikak, ideiak eta bizipenak ezagutzeko ikerketa parte-hartzaile bat burutu nahi da.

Dokumentu honetan, ikerlanaren helburuak, baliatuko den prozedura, metodologia, ikerketa-taldearen osaera, eta kronograma jaso dira¹.

2 HELBURUA

Ikerketaren helburu nagusia Bilbon haur txikiak dituzten guraso gazteek euskararekin dituzten bizipenak ezagutzea da eta beraien arteko harreman-sareen berri izatea, era berean, euskararen erabilera areagotzeko aukerak identifikatu ahal izateko.

Horretarako Bilboko gurasoen hizkuntz praktikak, ideiak (ideologiak) eta bizipenak aztertuko dira euren errealitatean eta egunerokotasunean kokatuta, hau da, Bilbok eskaintzen duen testuinguruan. Horrez gain, Bilbon egun dauden hizkuntz sareak ikertuko dira, sare berriak sortzeko gakoak eskuratzeko. Horrela, azterlanarekin etorkizunari begirako interbentzioa(k) diseinatzeko gidalerro edota gako praktiko batzuk lortu nahi dira.

¹ Gaur gaurkoz, ikerketak ez du izen propiorik. Azterketa prozesuan bertan erabakiko da izena.

3 PROZEDURA ETA METODOLOGIA

Bilbo osatzen duten zortzi barrutietatik bi barruti aztertuko dira. Barruti hauetan bi eremu txikiago aukeratuko dira; eremu hauek auzo-guneak izan daitezke.

Aztertuko diren eremuen aukeraketa-irizpideak ikerketaren lehen fasean zehaztuko dira. Irizpideak, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

- Interes soziolinguistikoa duten eremuak.
- Guraso gazte asko biltzen dituzten eremuak.
- Edota, kale-erabilera datuei erreparatuta bilakaera positiboa edota negatiboa izan duten eremuak².

Ikerketak bi urteko iraupena izango du, eta prozedurari dagokionean ikerketa lau fase ezberdinetan egitea aurreikusi da.

Hizkuntzaren-antropologian oinarritutako hurbiltze etnografikoaren metodologia erabiliz, ikerketa kualitatiboa garatuko da. Hiru izango dira erabiliko diren ikerketa-teknika nagusienak:

1. Behaketak: Behaketaren bidez ikertu nahi den egunerokotasunaren informazioa jasotzeko aukera izango dugu. Ikertuko diren hiztunen testuinguru soziolinguistikora lehen hurbilketa egiteko tresna izango da.
2. Banakako elkarrizketak: Mota honetako zortzi elkarrizketa burutuko dira ikerketaren lehen eta bigarren fasean. Elkarrizketa formal irekiak izango dira, hau da ikerketaren helburuen arabera gidoi baten bidez egituratuko dira guraso gazteek hizkuntzaren inguruan dituzten ideiak, bizipenak eta praktikak jasotzeko.
3. Talde-elkarrizketak: Ikerketaren bigarren fasean sei talde-elkarrizketa garatuko dira. Banakako elkarrizketetan bezala, talde-elkarrizketetan gurasoen diskurtsoak eta iritziak jasoko dira, baina oraingo honetan elkartzen direnek partekatutako dituzten solasaldien bidez.
4. Dinamika partehartzailea: Hirugarren fasean burutuko diren talde dinamiken saioen bidez guraso gazteei aukera emango zaie Bilbo eta euskararen arteko

² Lanketa hau egiteko barruti osoari buruzko kale-erabilera datua hartu beharrian, ibilbideen arabera datu zehatzagoez baliatuko gara. Izan ere, barrutia oso zabala baita, eta auzoen errealitatea egokiago islatzen baitute ibilbideek.

harremanaz gogoetatu, eztabaidatzeko eta, batez ere, ideiak eta proposamenak luzatzeko. Lehen bi fasetan ateratako ondorioen arabera diseinatuko dira dinamika hauek, baina hasiera batean lau saio egitea aurreikusi dira.

Lehen bi fasetan, guztira, 25-30 lagunekin egongo gara, aipatutako teknikak baliatuz. Lagun horiez gain, dinamika parte-hartzaileetara bertaratuko diren gurasoek ere beraien ekarpena egingo dute ikerketan. Zaila da orain dinamika horiek izan dezaketen dimentsioa kuantifikatzea.

Faseen lanketari heldu aurretik proiektuaren diseinua zehaztuko da. Martxoaren amaierarako izango dugu, hain zuzen, ikerketaren behin betiko planteamendu. Horretarako, bi elkarrizketa egingo dira.

Jarraian jaso dira fase bakoitzaren egitekoak zeintzuk izango diren.

3.1 LEHENENGO FASEA: GURASO GAZTEEN ELKARGUNEAK EZAGUTZEN

Lehenik eta behin, ikerketan parte hartuko duten gurasoen profila edo ezaugarriak definituko dira. Guraso informatzaile horiek bete beharreko ezinbesteko baldintza izango da euskararekiko interes gutxieneko bat izatea.

Horrez gain, ikerketaren hastapeneko fasean, norbanako horien elkargune naturalak zedarrituko dira. Elkargune horiek eskolak, elkarteak edo antzeko eremuak izan daitezke. Gune horien errealitatera hurbilpen bat egingo da, bertako dinamika zein biztanleak ezagutzeko asmoz. Horretarako erabiliko diren teknikak behaketak eta elkarrizketak izango dira.

Gune bakoitzeko bi behaketa egingo dira: bata, ikerlariak bakarka egingo dute, eta bestea, ikerlariak herritar batez gidatuta burutuko da.

Gune bakoitzeko bi elkarrizketa egingo dira, gurasoen errealitatea ongi ezagutzen duten norbanakoekin egingo dira elkarrizketa hauek. Elkarrizketatua irakaslea, eskolako zuzendaria, guraso elkarteko edo bestelako auzoko taldeko kide erreferentzial bat izan daiteke. Elkarrizketa hauek lagundu diezagukete besteak beste, aztertu nahi ditugun gurasoen profilak hobeto definitzen edota guraso hauekin kontaktuan jartzen.

Gurasoen ezaugarriak honako hauek izan daitezke:

- Hurrekin euskaraz hitz egiten ahalegintzen diren gurasoak

- Euskarazko gaitasun handiegirik eduki ez arren seme-alabek euskara erabil dezaten saiatzen diren gurasoak
- Hizkuntza-muda kontzientea egin duten gurasoak
- Euskara ikasten ari diren gurasoak
- Eskolako gune batean parte hartzen duten gurasoak
- Edota, euskararen aldeko edo auzoko herri mugimendu batean parte hartzen duten gurasoak.

3.2 BIGARREN FASEA: HIRIKO HIZTUNAK EZAGUTZEN

Fase honen helburua Bilboko hiztunak eta eurek hizkuntzarekin duten lotura (ideiak, praktikak eta bizipenak) ezagutzea litzateke. Sei talde osatuko dira eta kide bakoitzaren profila lehenengo fasean jasotako informazioaren arabera zehaztuko da. Talde hauetan ondorengo gaiak landuko dira:

- Euskara Bilbon: non, norekin, zertan, nola... erabiltzen da euskara?, hau da, euskararen presentzia eta ausentziaren mapa(k).
- Euskarari buruzko ideiak, usteak, iritziak, argudioak... Hizkuntz politikaren gaineko ezagutza, euskalgintza, Euskaraldia...
- Euskararekin lotutako bizipenak eta esperientziak: norbanakoak zein kolektiboak (hiriari lotutakoak).

Erabiliko den teknika talde elkarriketak izango dira. Horrez gain, beste bi elkarriketa ere egingo dira. Elkarriketa formal irekiak izango dira, eta talde-elkarriketetan jasotakoak kontrastatzeko eta osatzeko baliatuko dira hizkuntzaren inguruan dituzten ideiak, bizipenak eta praktikak jasotzeko.

3.3 HIRUGARREN FASEA: HIZTUNAK SARETZEN ETA AKTIBATZEN

Hirugarren fasearen helburua euskararen erabilera areagotzeko interbentzio eraginkorren gakoak zein izan daitezkeen ezagutzea da. Are gehiago, gurasoen arteko euskarazko harreman sareak sortzeko (edo indartzeko) esku-hartze batzuk ere proposatu nahi dira.

Fase honetan, hiriko hiztunak elkarlanean jarriko dira eta euskarari atxikitako proposamenak zein aurreikuspenak irudikatuko da. Hitz gutxitan, hiztunek euskararekin nahiko luketen harremana zirriborratzeko ahalegina egingo da.

Honetarako dinamika partehartzaileak burutuko dira. Lehen bi fasetan ateratako ondorioen arabera diseinatuko dira dinamika hauek.

3.4 LAUGARREN FASEA: BUKAERAKO EMAITZA ETA AURKEZPENA

Fase honetan prozesu osoan jasotako materiala antolatu, aztertu eta landuko da. Ondoren, ondorioekin bildutako txostena prestatu eta horren aurkezpena egingo da.

4 IKERKETA TALDEA

Ikerketaren Zuzendaria: Jaime Altuna Ramirez (EHUko Gizarte Antropologiako ikerlaria eta irakaslea)

Ikerketaren koordinatzailea eta ikerlaria: Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria)

Ikerlaria: Josu Ozaita Azpiroz (Antropologo ikerlaria)

5 KRONOGRAMA

	2023												2024											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Ikerketaren diseinua																								
1. FASEA																								
Bilbo ezagutzen: elkarrizketak																								
Bilbo ezagutzen: behaketak																								
2. FASEA																								
Hiztuna ezagutzen: talde elkarrizketak																								
Lehen faseko txosten laburra																								
Informazioaren analisia eta 3. fasearen prestaketa																								
3. FASEA																								
Dinamika partehartzaileak																								
4. FASEA																								
Informazioaren azterketa + txostena																								
Emaitzen aurkezpena																								